BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4381

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 31koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena. Honen bidez, aldatu da Deustuko unibertsitateari organo beraren 2006ko urriaren 24ko Ebazpenaren bidez emandako diru-laguntza, «Latinezko Esamolde Juridikoak» (ISBN 978-84-9830-349-0) lana euskaraz argitaratzekoa.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2006ko maiatzaren 16ko Agindu bidez onartu ziren, batetik, goi-mailako irakaskuntzara bideratutako liburuak euskaraz argitaratzeko diru-laguntzen arauak eta, bestetik, 2006 ekitaldian eskariak aurkezteko deialdia (2006ko ekainaren 6ko EHAA, 106. zk.).

Bigarrena.– Deialdi hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2006ko urriaren 24ko Ebazpenez ebatzi zen eta interesatu guztiei jakinarazi zitzaien. Hala, bada, Deustuko Unibertsitateari emandako diru-laguntzen artean zegoen Arantza Etxebarria Iturrate, Cesar Gallastegi Aranzabal, Andrés Urrutia Badoiola eta Ester Urrutia Idoiaga egileen obra «Latinezko esamolde juridikoak» lana euskaraz argitaratzekoa. Horretarako, 1.323 euroko guztizko zenbatekoa onartu zen argitalpen-gastuak finantzatzeko.

Hirugarrena.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2007ko urtarrilaren 23ko Ebazpen bidez argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi hartan emandako diru-laguntzak (2007ko otsailaren 16ko EHAA, 34. zk.).

Laugarrena.– Euskarazko lana «Latinezko esamolde juridikoak» (ISBN 978-84-9830-349-0) izenburupean argitaratu ondoren, Deustuko Unibertsitateak aurkeztu ditu eskatutako agiriak eta argitalpen-gastuen fakturak, 1.272 (BEZ gabe) euroko guztizkora iristen direnak; zenbateko hori emandako diru-laguntza baino txikiagoa da, 51 euro gutxiagokoa, zehazki.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdi honen arauen arabera, laguntza hauek liburuak argitaratzeak eragindako gastu mekanikoak berdintzera bideratuta daude eta, hala badagokio, itzulpen-gastuak finantzatzera.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuz onartuak, 49.10 artikuluan dio, hitzez hitz:

«Diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek emandako diru-laguntza edo laguntzak batuta, edo helburu bera lortzeko diren beste sarrera edo baliabide batzuk ere batuta (azken hori arauetan hala zehazten baldin bada), ez da inoiz ere onuradunak aurrera eraman nahi duen jardueraren kostua baino edo hasieran jarri zen helburuaren kostua baino handiagoa izango».

Hirugarrena.– Erakunde onuradunak emandako zenbatekoa baino gutxiagoko argitalpen-gastuak justifikatu dituela aintzat hartuta, eta aintzat hartuta, orobat, diru-laguntza horren arauek,

2006ko maiatzaren 16ko Aginduz onartuek, 24. artikuluan adierazten duela gain-finantzaketa gertatuz gero Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak emango duela, Unibertsitate Zuzendaritzak hala proposatuta, emandako laguntzaren zenbatekoa doitzeko Likidazio Ebazpena.

Laugarrena.– Aintzat hartuta, halaber, Unibertsitate Zuzendaritzak bidali duela, azaldutako zuzenbide-oinarriekin bat etorrita, 2006ko urriaren 24ko Ebazpen bidez onartutako laguntza aldatzeko proposamena, bai eta laguntza horren zenbatekoa 1.272 eurotan finkatu ere, aurkeztutako fakturen arabera zenbateko horrek ez baitu gainditzen eragindako gastuen BEZ gabeko zenbatekoa.

Horregatik guztiagatik, aipatutako arauei eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenei jarraiki, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2006ko urriaren 24ko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen Ebazpen bidez Deustuko Unibertsitateari emandako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatzea, «Latinezko Esamolde Juridikoak» lana (ISBN 978-84-9830-349-0) euskaraz argitaratzeko.

Bigarrena.– Goiko paragrafoak aipatutako diru-laguntza mila berrehun eta hirurogeita hamabi eurotan (1.272 euro) finkatu da.

Errekurtsoak:

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 107. eta 114. artikuluetan ezartzen duenari jarraiki, administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jar daiteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 31.

Unibertsitate eta ikerketa sailburuordeak bere ordez izenpetzeko eskumena eman zion 2011ko irailaren 23ko ebazpenaren bidez.

Zientzia Politikarako zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA OCHOA OLASCOAGA.